



Ayuntamiento de OYÓN-OION  
OYÓN-OIONgo Udala

Gaia: Oyón-Oiongo koronabirusaren egoera epidemiologikoari buruzko informazioa.

Oyón-Oiongo koronabirusaren egoera epidemiologikoari buruzko datuak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak ematen ditu, eta hemen kontsulta daitezke: <https://www.euskadi.eus/koronabirusaren-eboluzazioaren-inguruko-datuen-buletina/web01-a2korona/eu/>.

Argitaratutako azken buletina abuztuaren 21ekoa da, eta abuztuaren 20an eguneratutako datuak ditu. Egun horretara arte, Oyón-Oionen 14 positibo egon dira.

Buletinean datuak argitaratzeko beharrezkoa da egiaztapena egitea, eta ordu jakin batean amaitzen da. Horregatik, baliteke argitaratutako datuak eta, besteak beste, kaltetuen lekukotzaren bidez ezagutzen direnak bat ez etortzea.

Udalbatza Osoan dauden indar politiko guztietako ordezkariekin kontsultatu eta eztabaidatu ondoren, eta alkate naizen aldetik, honako hau eskatzen diegu herritarrei:

- Jarraitu herritarrentzako osasun-jarraibideak. Honako hauek dira:
  - Derrigorrezkoa da maskara erabiltzea.
  - 1,5 metroko distantzia fisikoa mantendu behar da.
  - Eskuak garbitu behar dira.
- Egon lasai eta izan pazientzia.
- Bilatu informazioa iturri ofizialetan: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila, osasun-elkargoak, erakunde ofizialak, OME, Oyón-Oiongo Udala, etab.
- Ez lagundu gezurrak eta albiste faltsuak zabaltzen. Ez elikatu besteen beldurrak edo zalantzak.

Arabako Errioxako ESIak jakinarazi du positibo eman duten pertsonen eta haiekin harremana duten pertsonen PCRak egin zaizkiela. Protokoloari jarraituz, proba egin zaien pertsona guztiak berrogeialdian daude. Proba horiekin, kaltetuen jarraipena bukatutzat ematen da.

Oyón-Oionen, 2020ko abuztuaren 21ean.  
Alkatea, Eduardo Terroba Cabezón.

